


GAZTE OLINPIADAK



"Skeleton froga lau zatitan banaturik dago. Zorionez, lehenengo zatia matematika froga bat da. Gure Maridoloxek 30 urtez gobernatu ditu bere fruta-dendako kontuak eta krixton abantaila aterako die LOGSE-ko umemoko hoiei!"



"Eta abantaila hori nahikoa ez bada, azken zatian, eskalada froga bat gainditu beharko dute partaideek. Hortxe edukiko degu gure Joxe..."



Beste arma sekretu bat ere badaukagu gure alde. Gure garaian ez genituen PLAIES-TEITXON eta deabrueria hoiek...




"...gutako edozeinek erraz emango die erakustalditxo bat txiba frogan!!"



"Ta zer diozue mozkor karreraz? Gure Juanmanuelek goiza osoa ematen du txikiteoan io ta su, eta bazkalordurako etxera iristen da xuxen-xuxen, norabiderik galdu gabe!!"



"Eta zer esanik ez goitiberra frogan! Gure Antton sekulako kamikazea da bere gurpildun aulkiarekin, eta Benita zeladore izan da urte askotan!"



Bai, guzti hori oso ondo dago. Baña zer gertatzen da kronoeskalada edo patin karrera bezelako frogekin?



Hoiek gazteek irabaz ditzen utziko dugu, umi-llatuegiak sentitu ez daitezen...

...azken finean gure bilobak dira eta bixitan etortzen jarraitzea nahi degu, ezta? Ji, ji, ji!!

